



3/2023 Foru Dekretu Arauemailea, uztailaren 23koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoa.

(...)

2. sekzioa. Ordainketa zerbitzuen hornitzaileen betebeharrak

166 ter artikulua. Definizioak.

Sekzio honen ondorioetarako, definizio hauek ezartzen dira:

a) "ordainketa zerbitzuen hornitzailea": ordainketa zerbitzuen eta finantza arloko presako beste neurri batzuen azaroaren 23ko 19/2018 Errege Lege Dekretuaren 5. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan jasotako entitate eta organismoak, eta errege lege dekretu horren 14. eta 15. artikuluetan ezarritako salbuespenetara biltzen diren pertsona fisiko edo juridikoak;

(...)